

Mintzola Ahozko Lantegiaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2020). Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa-lanen eta master-amaierako lanen proiektuak sustatzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea dute, beste helburu batzuen artean, hala Mintzola Ahozko Lantegiak nola Mikel Laboa Katedrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz-geroaren testuinguruan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hain zuzen bide horretan laguntzea eta, unibertsitateko edozein jakintza-alarretatik abiatuta, **antzerkigintza, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikergai gisa sustatzea** da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain juxtu ikerlan-proiektuen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan, sinesten dugulako unibertsitate-irakasle batek bermaturiko proiektuak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan, master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina beste ikerketa-lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin, horien ikergai nagusia antzerkigintza, kantugintza, bertsolaritza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat bada, nahi den jakintza-alarretatik ikertua. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

Hori guztia kontuan izanik, deialdi honen xedea honako hau da: deialdi publikoa argitaratzea ikergai nagusia **antzerkigintza, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat (edozein jakintza-alarretatik aztertua)** duten master-amaierako lanen **proiektuak** nahiz ikerketa-lan monografikoen proiektuak egiteko **bi dirulaguntza** esleitzeko.

PROZEDURA

- 2020an **2.000 euroko bi dirulaguntza** esleituko dira.
- Dirulaguntza jasotzeko, ezinbestekoa da titulaturia izatea unibertsitate-ikasketetan (baldintza hori egiaztatzen beharko da dirulaguntza jasotzeko unean, 2020ko urriaren 30ean beranduenez).
- UPV/EHUko master ofizialetako ikasleek aurkezturiko master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira.
- Aitu eta doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak baloratuko ditu aurkezturiko curriculumak eta ikerketa-proiektuak. Baremoak zehaztu ondoren, **puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du**. Puntuazio altuenak lortu eta dirulaguntza eskuratzea merezi duten hautagaien izenak proposatuko ditu, bai eta horren ordezkoen izenak, uko egiteak edo beste edozein gertaera konpontzeko. Batzordeak gurako guztiei edo batzuei elkarrizketa pertsonalak egitera dei egin ahal izango die. Batzordeak laguntzak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiak eta proiektuei egoki iritziko ez balie, 2020an dirulaguntzak (edo horietakoren bat) ez ematea proposa lezake.
- Ordainketa 90 eguneko epearen barruan egingo da, erabakia argitaratu ondoren.
- Proiektuaren arabera eginiko **ikerketa-lana 2021eko uztailaren 17a baino lehen entregatu beharko da** eta batzorde zientifiko batek onatzen eman beharko du.
- Saritutako proiektuei dagokien ikerketa lanak gauzatuak, Mikel Laboa Katedrak zein Mintzolak ikerketa lan horiek argitaratzeko eskubidea edukiko dute, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdira proiektu bat aurkeztea aski da, proiektuaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatuz.

ESKARIAK

- Eskariak eta behean zerrendatutako dokumentazio guztia PDF formatuan eta e-postaz bidali behar da ondoko helbide elektronikoetara: **pjo.perez@ehu.eus** eta **administrazioa@mintzola.eus**.

- Eskariak deialdi honekin batera doan eskari-orria beteta aurkeztuko dira.
- Eskariak aurkezteko epea: **2020ko ekainaren 26a arte**.
- Eskararekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
 - NANaren fotokopia.
 - Deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia.
 - Eskatzailearen CVa.
 - Espediente akademikoaren kopia.
 - Unibertsitate-irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa-lanaren zuzendari izango dela esanez.
 - Matrikularen frogagiria, UPV/EHUko master ofizialetan matrikulaturik izanez gero.
 - Ikerketa-proiektua: ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
 - Proiektuaren helburuak eta interesa.
 - Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia.
 - Proiektuaren garapen-maila.
 - Proiektuaren bideragarritasuna.
 - Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa.
 - Euskarazko proiektuak lehenetsiko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskariak aurkezteko epea: 2020ko ekainaren 26a arte.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2020ko uztailaren 17a, beranduenez.
- Ordainketa: 2020ko urriaren 30a, beranduenez.



- Proiektuaren araberako ikerketa-lana eginda entregatzeko epea: 2021ko uztailaren 17a, beranduenez.
- Mintzola Ahozko Lantegiaren atarian (www.mintzola.eus) eta UPV/EHUren atarian (www.ehu.eus) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elektronikoa honetara zuzenduko dira: pio.perez@ehu.eus